

Don JUAN CARLOS ETXEZARRETA VILLALUENGAJn.

Donostiako Udaleko Idazkari Nagusia naizen honek Secretario General del Ayuntamiento de San Sebastián

Neuk ziurtatua: Certifico:

Donostiako Udaleko Bozeramaileen Batzordeak, 2022ko Martxoaren 22an egindako ohiko bilkuran, adierazpen hau onartzea erabaki du, aho batez, testua honakoa izanik:

“Erakunde Adierazpena, sahariar herriari laguntzeko.

“Mendebaldeko Sahara Espainiako kolonia izan zen 1885etik 1975era bitartean, eta herrialde hartako 53. probintzia izatera iritsi zen 1958tik. 1975ean, Marokok okupatu zuen, Fronte Polisarioak kontra egin bazion ere. Hala eta guztiz ere, Nazio Batuek Espainia jo izan dute deskolonizatzeko dagoen lurralde horren indar administrazaitzat. Geroztik, gerra egon zen, 1991ra arte. Urte hartan, hain zuzen ere, bi alderdiek su-etena sinatu zuten, autodeterminazio-erreferenduma egiteko asmoz.

Hogeita hamar urte geroago, ordea, oraindik ez da egin erreferendum hori. Gainera, 2005ean, Marokok jarrera aldatu zuen: Saharari autonomia eskaintzetik, nazioarteko legedia urratzera igaro zen, Nazio Batuek ezin konta ahaletan eman baitituzte autodeterminazio-erreferenduma egitearen aldeko ebazpenak.

Hain zuzen ere, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak 2015eko abenduaren 10eko erabakian adierazi zuen Mendebaldeko Sahara ez dagoela Marokori aitortutako nazioarteko mugen barruan (232. puntua), Marokoko Erresumak ez duela Mendebaldeko Sahara administrazio Nazio Batuen edo nazioarteko beste erakunde baten agindurik (233. puntua), Maro-

Que la Junta de Portavoces del Excmo. Ayuntamiento de San Sebastián, en sesión ordinaria celebrada el 22 de marzo de 2022, aprobó, por unanimidad, la siguiente Declaración Institucional:

“Declaración Institucional de apoyo al pueblo saharauí.

“El Sáhara Occidental fue colonia española desde 1885 hasta 1975, llegando a ser la provincia 53 del país desde 1958. Pese a que fue ocupada por Marruecos en 1975 con la resistencia del Frente Polisario, España no ha dejado de ser considerada potencia administradora de un territorio pendiente de descolonización por parte de Naciones Unidas. Desde entonces hubo guerra hasta el año 1991, año en el que ambas partes firmaron un alto al fuego con la intención de celebrar un referéndum de autodeterminación.

Pero dicho referéndum después de treinta años sigue sin celebrarse y desde 2005 Marruecos cambió su postura para pasar a ofrecer una autonomía para el Sáhara contraviniendo la legislación internacional que se ha pronunciado en incontables resoluciones de la las Naciones Unidas en favor de un referéndum de autodeterminación.

De hecho el Tribunal de Justicia de la UE manifestó en su decisión del 10 de diciembre de 2015 que el Sáhara Occidental “no está incluido dentro de las fronteras internacionales reconocidas de Marruecos (punto 232), que el Reino de Marruecos no tiene ningún mandato de las Naciones Unidas o de otro organismo internacional para administrar el Sáhara



koko Erresumak Mendebaldeko Sahararen gainean duen subiranotasuna deuseza dela eta subiranotasun hori ez dutela aitortzen ez Europar Batasunak, ez haren estatu kideek, ez eta Nazio Batuek ere (241. puntua). Sententzia hori argiro berretsi zuen, ostera ere, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak 2021eko irailaren 29an: Mendebaldeko Sahararen lurraldeak eta Marokorenak ez dira berdinak, eta hango jarduera ekonomikoen onura hango herriari dagokio.

Egoera horrek ikuspegi zabal eta arduratsua merezi du, eta elkarrizketarako bide eman behar du, Nazio Batuek markatutako ildoen barruan. Hala, bada, Espainiako Gobernuak neutraltasun argia erakutsi behar du. Hain zuzen ere, alderdien arteko bitartekotza egiteko jarrera neutral horren ondorioz sartu zuten Mendebaldeko Sahararen lagun taldea Nazio Batuetan, Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluan beto-eskubidea zuten bost herrialdeetatik (AEB, Errusia, Erresuma Batua, Frantzia eta Espainia) laurekin batera.

Gatazkari eman nahi zaion irtenbide orok nahitaez bete behar du NBERen Segurtasun Kontseiluen 2021eko urriaren 29ko 2602 Ebazpena, inplikaturako alderdi guztientzat politika bidezko, iraunkor eta onargarri bat lortzeko konpromisoa berresten duena.

Gobernuko presidentek hainbat adierazpen egin berri ditu Sahararentzako autonomia aitortzearen inguruan. Adierazpen horiek martxoaren 18an prentsara filtratu ziren, eta, ondoren, Kanpo Arazoetako ministroak prentsaurrekoan onartu zituen. Hori, ordea, aurretik azaldutako guztiaren kontra doa, eta indartu egiten du Marokok lurralde horretarako lortu nahi duen jarrera. Adierazpen horiek ez datoz bat Espainiako Gobernuan eta Espainiako herrian gatazka honetan neutraltasuna gordetzeko dagoen adostasuna, eta traizio egiten diote Saharako herriari berari, Espainiako gizarteari eta koalizio-gobernuari. Gainera, nazioarteko zuzenbidea urratzen dute, eta eremu horrek pairatzen duen ezegonkortasun-giroa areagotzen.

Adierazpen horiek Marokoko erregeak egindako xantaia argi baten emaitza baino ezin dira izan. Xantaia horri Marokoko Gobernuak Espainiako Gobernuari etengabe egiten dizkion itsuskeriak eta erasoak gehitu behar zaizkio: Kanarietako

Occidental (punto 233) y “que la soberanía del Reino de Marruecos sobre el Sáhara Occidental es nula y no está reconocida por la UE ni por sus estados miembros, ni por las Naciones Unidas” (punto 241). Esta sentencia volvió a ser ratificada por el TJUE el 29 de septiembre de 2021 de manera muy clara: los territorios del Sáhara Occidental son diferentes a los de Marruecos y el beneficio de sus actividades económicas debe recaer en su pueblo.

Ante una situación que merece un enfoque amplio, responsable y de diálogo dentro de las líneas marcadas por las Naciones Unidas, la posición del gobierno de España ha de ser de clara neutralidad. De hecho, esa postura de neutralidad para mediar entre las partes le llevó a integrar el grupo de amigos del Sáhara Occidental en Naciones Unidas junto con cuatro de los cinco países con derecho a veto en el Consejo de Seguridad de Naciones Unidas (EE.UU., Rusia, Reino Unido, Francia y España).

Cualquier solución que se busque al conflicto debe cumplir con lo recogido en la Resolución 2602 del Consejo de Seguridad de la ONU de 29 de octubre de 2021, reafirmando en el compromiso de alcanzar una política justa, duradera y aceptable por todas las partes implicadas.

Las recientes declaraciones del Presidente del Gobierno, filtradas a prensa el viernes 18 de marzo y posteriormente reconocidas en rueda de prensa por el Ministro de Asuntos Exteriores, reconociendo una autonomía para el Sáhara van en contra de todo lo anteriormente expuesto y refuerzan la postura que busca Marruecos para ese territorio. Dichas declaraciones no representan el consenso del Gobierno de España ni del pueblo español en torno a la neutralidad en este conflicto y traicionan al propio pueblo saharauí, a la sociedad española y al Gobierno de coalición, contraviniendo el derecho internacional y abonando el ambiente de inestabilidad que afecta a dicha zona.

Dichas declaraciones sólo pueden ser producto de un claro chantaje por parte Rey de Marruecos. Un chantaje que se suma a los continuos desplantes y ataques por parte del gobierno marroquí al gobierno de España: la



urak harenak direla adieraztea; behin eta berriz legez kanpoko erreklamazioak egitea arrantzaren arloan; lurraldearen gaineko haren agintaritzak aitortuta ez dagoenez, harenak ez diren baliabide naturalak merkaturatzea eta ustiatzea; eta, bereziki, migrazioa arma gisa erabiltzea.

Horiek hala direla, eta jakinik Espainiako estatuak gatazka honetan jarrera bat hartu aurretik eztabaida bat izan behar dela ganbera legegileetako batean eta alderdi politiko bakoitzak eman behar duela ezagutzera bere iritzia eta jarrera, betiere irtenbide bat bilatzeko asmoz eta Saharak herri libre gisa zer etorkizun izango duen erabakitzeko duen eskubidea errespetatuz, hau da gure

ERAKUNDE-ADIERAZPENA

1. Donostiako Udalak adierazten du Mendebaldeko Sahara lurralde ez-autonoma dela, nazioarteko zuzenbidearen mende dagoela eta ez dela inoiz Marokoko Erresumako kide izan. Horregatik, Marokoko Erresumari eskatzen diogu utz diezaiola Mendebaldeko Sahara legez kanpo okupatzeari eta bide eman diezaiola Saharako herriari autodeterminaziorako duen eskubidea baliatzeko.

2. Donostiako Udalak NBEren Segurtasun Kontseiluaren 2021eko urriaren 29ko 2602 Ebazpena babesten du. Ebazpen horretan, berretsi egiten da alderdi guztientzat "bidezkoa, iraunkorra eta onargarrira den eta Mendebaldeko Saharako herriaren determinazio askea aurreikusten duen konponbide politiko bat lortzeko" konpromisoa.

3. Donostiako Udalak babestu egiten ditu Nazio Batuen ebazpenak, horien bidez irtenbide bat eman nahi baitzaio duela hainbat hamarkadatik Mendebaldeko Saharan dagoen gatazkari, Saharako herriarentzat autodeterminazio-erreferendum bat eginda.

4. Donostiako Udalak udalherriaren babesa helarazi nahi dio Saharako herriari; aritu ere, hainbat hamarkadaz aritu baita elkartasuna agertzen, laguntza humanitarioa bidaltzen eta haurrak hartzen.

declaración de las aguas canarias como suyas, reiteradas reclamaciones ilegítimas en materia de pesca, comercialización y explotación de recursos naturales que no son suyos porque su autoridad sobre el territorio no está reconocida, y especialmente, la utilización de la migración como arma.

En base a lo expuesto, y siendo conscientes de que la postura que tome el Estado Español con respecto a este conflicto debe ser tras un debate en las cámaras legislativas donde todas las formaciones políticas den a conocer su parecer y postura buscando una solución que debe respetar al pueblo saharauí decidiendo su futuro como pueblo libre, presentamos la siguiente:

DECLARACIÓN INSTITUCIONAL

1. El Ayuntamiento de Donostia- San Sebastián, constata que el Sáhara Occidental es un Territorio No Autónomo, sometido al Derecho Internacional, que nunca ha pertenecido al Reino de Marruecos y por ello le exigimos que cese la ocupación ilegal del Sáhara Occidental y permitir el ejercicio del derecho del Pueblo saharauí a la autodeterminación.

2. El ayuntamiento de Donostia-San Sebastian apoya la Resolución 2602 del Consejo de Seguridad de la ONU de 29 de octubre de 2021 en la que se reafirma el compromiso de "alcanzar una solución política justa, duradera y aceptable" para todas las partes y que "prevea la libre determinación del pueblo del Sáhara Occidental".

3. El ayuntamiento de Donostia-San Sebastian apoya el conjunto de las resoluciones de las Naciones Unidas que buscan una solución para décadas de conflicto en el Sáhara Occidental mediante un referéndum de autodeterminación para el pueblo saharauí.

4. El ayuntamiento de Donostia-San Sebastian traslada el apoyo de esta localidad al pueblo saharauí tras décadas de solidaridad, envío de ayuda humanitaria y acogida de sus niños y niñas.



5. Donostiako Udalak akordio horien berri emango die legegintza-gorteei (Kongresua eta Senatua) eta Nazio Batuen Lehen, Hirugarren eta Laugarren Batzordeei".
=====

5. El ayuntamiento de Donostia-San Sebastian dará traslado de estos acuerdos a las cortes legislativas (Congreso y Senado) y a las Comisiones Primera, Tercera y Cuarta de las Naciones Unidas".
=====

Eta, horrela jasota geratzeko eta dagozkion ondorioak izan ditzan, Alkatezak agindu eta ontzat emanik, egiaztagiri hau egin dut, Donostian, 2022ko martxoaren 29an.

Y, para que así conste y surta los efectos procedentes, expido, firmo y sello esta certificación visada por la Alcaldía y de su orden en la ciudad de San Sebastián, a 29 de marzo de 2022.

IDAZKARI NAGUSIA – EL SECRETARIO GENERAL

Juan Carlos ETXEZARRETA VILLALUENGA

**ALKATEAK O. E. -
V. ° B. ° DEL ALCALDE:**